La Salle Berrozpe LSB Andoain

LA SALLE BERROZPE **SORTZE LANEAN**

Gure konpromisoa ekintzailetzarekin

Ekintzaile izatea ez da enpresa-sortzeko gai izatea edo bere barnean dibertsifikatu ahal izatea. **Ekitea jarrera bat da batik bat.** Erronkei baikortasun eta ausardiaz aurre egin, ahalegina, iraunkortasuna eta ekimenaren bitartez taldean lan eginez irtenbideak bilatu eta eguneroko lanean oztopoak gainditzen dituena.

Aldizkari honekin, ikasturte honetan burututako proiektu desberdinen edota ikasturtean zehar parte hartu dugunen bitartez Ikastetxean eskaintzen ditugun **hezkuntza etapa guztietan** –Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa– **La Salle Berrozpen hartu dugun ekintzailetza** konpromisoa helarazi nahi dizuegu familiei.

Ekintzailetzarekiko konpromisoan aitzindari gara eta duela 15 urtez geroztik horren alde egin dugu beti, era honetan gure ikasleek euren bizitza profesionalerako eta baita ibilbide pertsonalari aurre egiteko **gaitasun erabilgarriak eskuratuko dituztenaren** uste osoa daukagu**.** Eskerrak eman nahi dizkiegu ere erakundeei –Gipuzkoako Foru Aldundia, Lanbide Heziketarako Sailburuordetza- eta beste zenbait eragileri eskaini dizkiguten laguntzarengatik.

Proiektuka hezi

Gainditu gabeko irakaskuntza dugu ekintzailetza Euskadin, eta arlo desberdinetatik dihardute errealitate hori aldatzeko lanean. Ikastetxe honetan **proiektuetan oinarritzen den hezkuntzan** gaude buru belarri murgildurik, non gure ikasleak erronkaz beteriko etorkizunari eta gero eta zorrotzagoa den lan-merkatuari aurre egiteko, oinarrizko ardatza den ekintzailetza hezkuntza eredu bihurtu den. Gure erantzukizuna da haiek herri honetako parte izatea, langile ekintzaile, enpresa-sortzaile edota gizarte ekintzaile gisa.

> La Salle Berrozpeko ikasle-irakasleak **proiektu eta gaietan oinarritutako hezkuntzan** daude murgildurik, non ekintzailetza hezkuntza eredu bihurtu den

Zenbait proiektu

Ondoren, hezkuntza etapa desberdinetan 15-16 ikasturtean zehar parte hartu dugun zenbait proiekturen adibideak luzatu nahi dizkizuegu. Gehienetan maila desberdinetako ikasleen artean edota beste ikastetxe edo eragile batzuekin batera egin dira. Azpimarratu nahi genuke ekimen hau ezinezkoa litzatekeela protagonista nagusi hauek gabe: ikasleak eta irakasleak.

Irakasleek proiektu hauetan daukaten parte hartzea, euren ordutegia eta eginbeharraz gain, ezinbestekoa da erronka hauek burutzeko, guzti honen ondorioa baita ikasle motibatua, ilusioz betea eta ikasgelaz harago lan egiteko prest agertuko dena.

Etengabeko mugimenduan

Proiektuetan eta lehiaketetan parte hartzeko tresna honek aurrera egin eta **ekintzailetzaren aldeko apustua** finka dadin, arlo honetako Ikastetxeko talde teknikoak aldizkako bilerak egiten ditu laneko bileretan parte hartuz, proiektu desberdinen jarraipena eginez, ekintzailetzaren sustapenerako prestakuntza, edota hezkuntza sistemarekin egunean egoteko helburuaz, arlo honekin zerikusia daukaten berriak, liburuak eta dokumentuen jarraipena eginez. **Urtean zeharreko etengabeko prestakuntzaz** ari gara.

STARTINNOVA ETA FIRST LEGO LEAGUE

First Lego League lehiaketa eta **STARTinnova** bezalako proiektu desberdinak irabazi edo finalista izateagatik Ikastetxeak lortutako sariak, ohikoak dira, eta horrek ondo egindako lana eta maila handiko irakasleen laguntzarekin eskola orduetatik kanpo prestatzen jarraitzeko prest dauden ikasleen motibazioa erakusten du.

Gure gazteen arteko ekintzailetza sustatzea da **STARTinnovaren** helburua. Batez ere Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ikasketak egiten ari diren ikasleei zuzendurik dago. Ikasturte honetan, La Salle Berrozpek berriro hartu du parte lehiaketa honetan eta Batxilergoko 2. mailako ikasle talde batek, 17 urtetik beherako ikasle kategoriako 1.postua lortu du. Hain zuzen ere, Doties Cloties izeneko proiektu hau bigarren eskuko arroparen truke eta pertsonalizatzea ezartzea litzateke.

Bestalde, La Salle Berrozpe ikastetxeak urtero hartzen du parte **FLL (First Lego League)** lehiaketan, zientzia eta errobotika alorreko 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako lehiaketa, non ikasleak epaimahaiak proposatutako erronka bati aurre egin behar dioten eta Ikastetxearen ibilbidea oso arrakastatsua den. Ikastetxeko Bigarren Hezkuntzako zortzi ikaslek osatutako LSBideluze taldeak –izena mantendu arren ikasturtero kideak aldatzen dituen taldea- birziklatu eta materialak berreskuratzeak daukan garrantziaz gizartea jabearazteko proiektu batekin hartu du parte aurten Euskadiko Lehiaketan.

ESKOLA-ENPRESAK ETA HAZTEGIAK

Ikasenpresa eta Urratsbat, Lanbide Heziketa ikastetxeetan ekintzailetza bultzatzeko asmoz, TKNIKAren bitartez Eusko Jaurlaritzako LHko Sailburuordetzak sustatutako bi proiektu dira. Izan ere, **Ikasenpresa** hezkuntza programa ikasgeletan eskola alorreko benetako enpresak sortzeaz arduratzen da, zein produktu eskaini eta berauek merkaturatzen saiatuz. Ikasturte honetan zehar, urritik ekainera bitartean, La Salle Berrozpen **sei kooperatiba sortu dira**, non 63 ikaslek parte hartu duten. Hauetako lau, Baitabai, Moldeados, Lagundu-laguntzen eta Euskalmek izenekoak, LHko ikasleek sortuak eta beste bi, Ekolan 1516 eta LSB4ases, DBHko 4. mailako ikasleek sortuak. Ikasturtea amaitu ondoren, guztiak desegin dira.

Urratsbat, bestalde, haztegi edota enpresa inkubatzaile

bihurtu nahi ditu ikastetxeak, **ikasleak, ikasle ohiak edota enpresa-sortzaile izateko** nahia duen edozeini aholkua eskainiz. Ikasturte honetan piezen mekanizatuan aritzen diren hiru gaztek osatutako SL bat sortu da, eta horrez gain euren enpresa alorreko ideiak aurrera eramateko asmotan dabiltzan beste lagun biren aholkatze lanak daramatzate aurrera.

BESTE ZENBAIT PROIEKTU

Hona hemen 750 ikasle ingururekin ikastetxeak parte hartu duen beste proiektu eta programa batzuk:

- **Azoka Txiki** eta Haur Hezkuntzako ikasleen **Txissspummm** erakusketa, eskola etapa txikienetatik proiektu bihurtzen diren ideien bitartezko ekintzailetzaren sustapen eta bultzada adibideak.

- **Sracht** proiektua, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako First Lego Leagueren aplikazio bat.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko ikasleen artean bultzatutako **Gazeketa 2.0** lehiaketa, non finalean parte hartu zuten gure Heziketa Zikloetako ikasle talde bik, ACABEk (Anorexia eta Bulimia Elkartea) proposatutako erronkari erantzun behar izan zioten, hauek benetako gaixotasunak direla gizartea kontzientziarazteko.

- Urte honetan honako izenburua izan duen **ONCEren** ekintzailetza lehiaketa: "Zer da talentua. Zure talentua deskubritzeak dena aldatzen du", non gaiari buruz collageak eginez, DBH eta Lehen Hezkuntzako 170 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten. Talde baten lanak Gipuzkoa mailan zein Euskadikoan saria lortu zuen.

- Ekintzailetza prozesuarekin lotutako gaiak sustatu eta zuzendaritza eta kudeaketa trebetasunen jabetza bultzatzen duen Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako **SEFED** Inform programa.

- "**Don Bosko Saria**" eta ikerketa eta berrikuntza teknologikoaren "**Premio Nacional Don Bosco**" lehiaketetan parte hartzea. Hauetako bigarrenean, Heziketa Zikloetako ikasleen proiektuetako batek lehenengo postua lortu zuen E-ONTZIA egitasmoarekin. Proiektu honen bitartez, zaborrontzietan jarritako gailu elektroniko baten bidez zer zabor kantitate dagoen jakin daiteke zaborren bilketarako kudeaketa eraginkorragoa egiteko.

- **LSDREAMS** lehiaketan izandako parte hartzea. Parte-hartzaileek giza eta teknika alorreko proiektuak jasangarriago egitea ahalbideratzen die lehiakideei Europar lehiaketa honek, gai ekintzaile eta berritzaileak, gai digitalak eta elkarlaneko tresnak garatuz, baita Heziketa Zikloetan ere.

- Ikasturte bakoitzaren amaieran, **Ekintzailetza eguna** ospatzen du La Salle Berrozpek zenbait jardunaldietan, bata Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, beste bat DBH-koentzat eta hirugarrena Lanbide Heziketakoentzat. Izan ere, ikasturte honetan makinekin egindako proiektuen erakusketa eta defentsa egin da Lehen Hezkuntzan, hiru irabazle izan dituelarik. Lanbide Heziketako saioan, bestalde, hiru enpresa-sortzaile adibide izan dira: hain zuzen ere, euren enpresa sortu duten bi ikasle ohi eta negozio plana aurrera daraman beste hirugarren bat.

Ekimen egitura hau ezinezkoa litzateke bi protagonista nagusi hauek gabe: **irakasleak eta ikasleak**





Kanpoko hainbat proiektuek –batez ere nolabait ekintzailetza sustatzen duten lehiaketak-, La Salle Berrozpeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoko 750 ikasle biltzen dituzte, eta hauei, ikasle guztiek eta hauen familiakoek parte hartzen duten Ikastetxeko bertako hezkuntza proiektuak gehitu behar zaizkie. Guzti honi, kanpoko proiektu hauen prestakuntza, garapena eta laguntzan ari diren hogeiren bat irakaslek osatutako sarea gehitu behar zaio.



ESKERRIK ASKO GUZTIOI

La Salle Berrozpe LSB Andoain

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

ikasmina:
Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.